



OINARRIZKO JARRAIBIDEAK ELEIZBARRUTIKO PARROKIETAN ETA ERAKUNDEETAN ELEIZKIZUNAK ETA PASTORAL JARDUERAK GARATZEARI BEGIRA

Osasun egoera kontuan hartuta eta *Osasun arloko Sailburuak*, COVID-19 pandemiak izan dauan bilakaeraren eraginez dogun egoerari aurre egite aldea, Euskadiko Autonomia Erkidegorako ezohiko prebentzino-neurriak jasoz *2020.eko urriaren 22an argitaratu dauan eta zapatuko 00:00etan indarrean sartuko dan AGINDUA* indarrean dan bitartean, *ondorengo aldaketak sartuko dira*:

KULTU-ETXEAK

1.- %50era murrizten da aforoa eleizkizun guztietan (mezak, hiletak, ezkontzak, bateoak, jaunartzeak). Beraz, leku bakotxean zenbat jente sartzen dan barriri kalkulatu beharko da eta katela jarri, jente guztiak ikusteko moduan, baimenduta dagoan jente-kopurua aitatzuz eta zein lekutan jarri daitekezan markatuz.

2.- Murriztu egiten da beiletan parte hartu daikien lagunen kopurua (30 lagun kanpoan danean eta 6 leku itxietan). **Hildakoaren hobiratzean edo errausketaren aurreko agurrean** gehienez 30 lagunek parte hartu ahal izango dabe kanpoan danean eta 10 lagunek leku itxietan.

Kultu-etxeetan, indarrean jarraitzen dabe ondorengo neurriek:

- 1. Maskararen erabilera:** nahitaezkoa da maskararen erabilera 6 urtetik gorako guztientzat. Eukaristiako ministroek maskara jarrita eukiko dabe uneoro, berba egiten dabenean izan ezik.
- 2. Lagun arteko tartea:** denpora guztian, metro eta erdiko tartea gordeko da, bai bankuetan, bai sarrera eta urteeretan, bai altaran eta bai jaunartzerako ilaretan.
- 3. Eskuak garbitu:** behin eta barriri garbitu behar doguz eskuak eta horretarako sarreran gelak egongo dira eskuragarri. Kartela jarrea komeni da, sartzean zein urtetean eskuak garbitzea derrigorrezkoa dala gogoratzeko. Eskularruak erabili ezker be, ezinbestekoa da eskuak desinfektatzea. Komuninoa banatu aurretik eta ostetik, ospakizunean buru dan abadeak eta komuninoa banatuko dabenek eskuak desinfektatu beharko dabez.
- 4. Lekuen garbitze, aireztatze eta desinfektatzea:** kontu handiz beteko doguz neurri honek kultu-etxeetan, batez be bankuen, ateen heldulekuen eta danok erabilten doguzan gauzen desinfekzioan arreta jarritz, produktu ez baliatuz eta gure eleiza eta ermitetan gordeten dan ondare artistikoa egokitasunez zainduz.

5. **Eskuz esku erabilten diran materialak:** ez da eskuz esku erabiliko abestien orririk, liburuxkarik, e.a. Objektu liturgikoak paliaz estalita egongo dira.
6. **Ospakizunetan,** indarrean jarraituko dabe bakearen eta komuninoa isilean hartzearen inguruko neurriek eta 2020.eko ekainaren 19ean gotzain aginduan ezarritako berariazko arauak bateorako, autortzarako, ezkontzetarako, sendotzarako eta gaixoen oliadurarako.
7. **Diru-batzeak kontu handiz egin;** ospakizunaren amaieran edo jaunartzearen ostean egin, saskia eskuz esku erabiltea saihestuz.

PASTORAL JARDUERAK

Pastoral jarduerari dagokienez, Pastoral Barruti edota parrokia bakotzak erabagiko dau ze jarduera egin era birtualean eta ze batzar deitu lokaletan. Gaur egungo osasun egoera zein dan ikusita eta indarrean dagozan arauak kontuan hartuta, arren eskatzen jake arrisku-taldetzat jotzen diranetan dagozan pertsoneri ez daiela dalako arrisku hori gehitu daikien jardueretan parte hartu. Eta jakina, COVID-19agaz bat datorren sintomarik dauan edozeinek agindutako osasun arauak zorrotz bete beharko ditu, bere osasunagaitik eta alkarte osoaren osasunagaitik.

Ondorengo arauak kontuan hartuko dira pastoral jardueraren garapenerako:

1. **Maskara erabili:** nahitaezkoa da maskararen erabilera 6 urtetik gorako guztientzat batzar eta jarduera guztietan zein guztiontzako eremuetan eta bulegoetan, lagun bat baino gehiago egon ezkeru.
2. **Lagun arteko tartea:** guztiontzako eremuetan, bulegoetan eta batzar-geletan metro eta erdiko gitxienerako tartea gordeko da beti.
3. **Eskuak garbitu:** eskuak garbitzea ezinbestekoa da eta hori egiteko eskatzeaz batera, gel desingektatzaileak egongo dira eskuragarri sarrera nagusietan, bulegoetan eta batzar-geletan. Kartela jartea komeni da, sartzean eta urteteen eskuak nahitaez garbitu behar doguzala gogoratu. Eskularruak erabili ezkeru be, eskuak desinfektatu egin behar dira..
4. **Lekuen garbitze, aireztatze eta desinfektatzea:** kontu handiz beteko doguz neurri honek bulegoetan eta batzar-geletan, batez be aulkiak, mahaiak, teklatuak arratoiak, telefonoak, ateen heldulekuak, txorrotak, e.a., eta danok erabilten doguzan gauzak arretaz desinfektatu. Batzar bakotxaren ostean, erabilitako gela aireztatu eta desinfektatu egin behar dogu.
5. **Batzar-geletan sartuko dan jente-kopurua mugatu:** edozein batzar-geletan gehienez sartu daiteken jente-kopurua, guztira sartu daitekenaren %50a da. Gela bakotxean kartela ipiniko da, zenbat jente sartu daiteken jakinaraziz. Lagun arteko metro eta erdiko tartea gordez jarriko dira aulkiak eta erabili ezin daitezkezanak markatu edo kendu egingo dira.
6. **Jente-kopurua heziketa taldeetan:** indarrean dan araudiaren arabera, era guztietako heziketa-batzarrak gehienez 25 lagunekoak izango dira, kopuru horrek %50aren araua beteten badau eta lagun arteko metro eta erdiko tartea gordeko da beti.
7. **Batzarren iraupena:** batzarren iraupena ahalik eta laburrena izatea komeni da eta, dana dala, 90 minutu baino gehiago ez dira luzatuko.

8. **Eskuz esku erabilten diran materialak:** liburuxka, aldizkari edo materialak ez dira eskuz esku erabiliko eta, holan ez danean, kontu handiz jokatu da, eskuak garbituz horreek erabili aurretik eta erabili ondoren.
9. **Parrokietako taldeen batzarren arduradunak:** batzarra deitzen dabenak, ondorengo honeez arduratuko dira: gela gorde, osasun-arauak betetea bermatu, partaideen erregistroa bete eta aireztatze eta desinfektatze egokia ziurtatu erabilera bakoitzaren aurretik eta ondoren.
10. **Parrokiakoak ez diran taldeen batzarrak parrokiako lokaletan:** deialdia egiten daben arduradunek osasun-eta segurtasun-neurri guztiak betetea bermatuko dabe, partaideen erregistroa eginez.
11. **Lokalen erabilera antolatu:** pastoral jarduerak antolatzea komeni da, talde bat baino gehiago batera batu ez daiten eta, beti be, jente-pilaketak saihestuz eraikinen barrualdean eta kanpoaldean.
12. **Parrokiako erregistroa:** aforoa kontrolatzeko eta, beharrezkoa izan ezker, partaideen arakatzea errazteko, parrokiaren batzarren eta topaketen erregistroa egitea komeni da, honako honeek idatziz jasoz: batzarren eguna, deitzailea, partaideen kopurua, datuak eta kontaktua, datuen babeserako eta pribatutasunerako indarrean dagoan araudia errespetatuz.
13. **Parrokiako bulegoa:** alde aurretik hitzordua jarri izapide administratiboetarako, harreretarako, batzar pertsonaletarako, e.a.
- 14.

KULTURA JARDUERAK

1.- Bisita turistikoak kultu-etxetan

Kultu-etxeek garbitasun, aireztatze eta desinfekzioari dagokionez bete behar dabezan berariazko arauez gainera, bisita turistikoak onartzen dabezan eleiza, ermita, santutegi eta eremu erlijiosoetan, gehienez 6 lagunez –gidaria barru- osatutako taldeak sartuko dira, lagun arteko tartea gordeko da, maskara jarrita eroango dabe eta aretoetan sartu daiteken jente-kopurua (%50) ez da gaindituko.

2.- Bisita gidatuak eremu kulturaletan (Museoa, Artxiboa, Liburutegiak)

Gehienez 6 lagunez –gidaria barru- osatutako taldeetan egingo dira bisita gidatuak, lagun arteko tartea gordeko da, maskara jarrita eroango dabe eta aretoetan sartu daiteken jente-kopurua (%50) ez da gaindituko.

3.- Kultura ekitaldi eta jarduerak

Ehuneko 50aren aforoa, maskara jarrita eukitea eta lagun arteko tartea bermatu ezker egin ahal izango dira. Leku itxietan, 400 laguneko kopurua ez da gaindituko eta kanpoan, 600 laguneko kopurua.

Bilbao 2020-10-23